

ESZENA KONTADORES

Kontadores, Donostiako Udaleko Gazteria eta Aterpetxe Saileko ekipamendua, elkartze eta sustapen topaleku bat da, non batik bat 18-30 urte bitarteko gazteak euren ezinegon kulturalak garatu eta aurrera eraman ditzaketen, eta baita euren proiektu sortzaileak elkarbanatu ere.

Kontadoresek gazteei erremintak eta espazioak eskaintzen dizkie euren proiektuak aurrera atera ahal izateko, erabiltzaileen parte-hartze aktibo bat sustatuz bere fase guztietan. Modu honetan, gazteen elkargune bihurtzen da, aisialdiko eta formaziorako gunean, esperientziazio laborategian, espresiorako eta parte-hartzerako kanalean, sorkuntza eta produkzioarako babesean, espazio soziokultural batean.

Kontadoreseko jarduera hiru ekintza lerrotan banatzen da: **Laborategiak** edo lantegi kulturalak; areto **Lagapenak** (non aretoak erabiltzen dituzten pertsona hauek, puntualki euren proiektua beste erabiltzaile batzuekin partekatzen duten) eta **Eszena**, non K-ESZENA programa txertatzen den.

K-ESZENA PROGRAMA

Zer da?

K-ESZENAn programa **arte bizi**ekin erlazionaturiko lanak erakusteko espazio bat da (dantza, antzerkia, performance-a...) **Esperientziadun eta hasiberriak diren sortzaileen elkarbizitzarako** espazio bat da ere.

Era guztietako **proposamenak** ongietorriak izango dira, espazio ireki bat izatea baita asmoa, esperientziaziora, hausnarketara eta trukera gonbita eginez (pieza luzeak, motzak, inprobisazio saioak, entsegu orokorrak, sorkuntza prozesuetara ate irekiak...)

Arte biziekin erlazionaturiko natura ezberdineko lanek, publikoarekin elkarrizketa zuzena izango duten topaleku bat izan nahi du. Espazioak eta publikoak harreman zuzen, hurbileko eta aberasgarri bat izatea erraztuko duen trukerako dinamikak sortu nahi dira. Eszena programa osatuko duten proposamenak Kontadoreseko agenda kulturean sartu eta komunikatuko dira.

Noiz?

K-ESZENA hilabeteetan behin edo bitan gertatuko da, asteburua lehenetsiz (ostiral edo larunbat arratsaldean).

Obra bakoitzaren programaziorako datak, izena-eman duen pertsona eta Zentroko pertsona arduradunaren artean adostuko da.



Non?

Kontadoreseko Areto Nagusian erakutsiko dira obrak, zeinek agertoki bat duen ikus-entzunezkoekin, kamerinoz...hornitua. Zutik 250 pertsonentzako edukiera du eta eserita, berriz, 88entzako.

Izen-ematea:

Izen-ematea urte osoan zehar zabalik egongo da (uztaila eta abuztuko itxiera hilabeteetan izan ezik). Parte-hartzea eskatzeko Zentroarekin harremanetan jarri 943 483476 telefonoan edo kontadores@donostia.eus posta elektronikoan.

Proposamenen balorazioa:

Kontadoresek egingo du proposamen zein egitasmoen balorazioa eta jarriko da harremanetan izena-eman duen pertsona edo taldearekin, proposamena egin eta astebeteko epean.

Onarturiko proposamenei babesa:

Proposamen eszenikoa onartu ostean, Kontadores arduratuko da jardueraren promozioa egiteaz, hainbat hedapen kanalen bitartez (online zein offline). Zentroko arduradunek jarduera ahalik eta hoberen gauzatu dadin, ekonomikoki babestu edo ez balioetsiko dute (kontuan hartu dira hainbat aspektu, besteak beste, obraren iraupena, partaide kopurua, desplazamendua...). Horretaz gain, aretoko teknikari baten laguntza edukiko dute. Kontadoreseko K-ESZENA programaren parte diren obrek doako sarrera izango dute.